

<p>Ikasgaiaren izena Kodea. Komunikazioaren teoria eta egitura</p>	<p>ECTS kredituak 6. ECTS Oinarrizko prestakuntza</p>
<p>Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena LEHEN MAILA – SEI HILEKOA</p>	<p>Modalitatea Presentziala</p>
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak</p> <p>- Oinarrizko kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Komunikazioaren historia ezagutzea, paradigma berriak ikastea eta unean uneko komunikazio egiturak identifikatzea, komunikazio mezuak balioesteko eta dagokien testuinguruan kokatzeko</p> <p>(Kodea)- Informazio sinesgarria, fidagarria eta kalitatezkoa bereiztea, eta berriak zorroztasunez eta modu kritikoan prestatzea</p> <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Talde lana</p> <p>(Kodea)- Ikasten ikastea</p> <p>(Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p> <p>- Kompetentzia espezifikoak:</p> <p>(Kodea)- Iturriak identifikatzea, ebaluatzea eta sailkatzea, informazio egiazkoa eta fidagarria lortzeko</p> <p>(Kodea)- Komunikazio enpresak ezagutzea, bai tokikoak, bai naziokoak, bai nazioartekoak</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak</p> <p>Gaur egungo komunikabide eta komunikazio egitura nagusiak ezagutzea Modu kritikoan berri emateko eta komunikatzeko irizpide egokienak identifikatzea Masa komunikabideen teoria nagusiak identifikatzea, baita haien eginkizun sozialak eta publikoa osatzeko prozesuak ere Informazioa eta desinformazioa bereiztea, eta gehien erabiltzen diren prozesu komunak sintetizatzea Informazioa eta iritzia bereiztea masa komunikabideen komunikazio praktikan Euskal Herriko komunikazio enpresen berri izatea eta horien ezaugarriak eta antolaera ezagutzea Nazioarteko komunikazio enpresen berri izatea eta horien ezaugarriak eta antolaera ezagutzea</p>	
<p>Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena Deskribatutako profil profesional guztietarako beharrezko ezagutzak eta gaitasunak ematen dizkie ikasgai honek ikasleei, baina, bereziki, Ikus-entzunezko komunikatzailea eta Produktorea profiletarako beharrezkoak.</p>	
<p>Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko kompetentziekin duen harremana</p> <p>MT1. Eskola magistralak</p>	

MT2. Kasuak aztertzea
MT3. Problema ebaztea
MT4. Proiektuak

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

JP1. Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problema edo proiektuak, lan kooperatiboa...
JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak
JP3. Eskola praktikoak
JP4. Ahozko azalpenak
JP5. Tailerrak
JP6. Jarraipenerako tutoretzak
JP7. Mintegiak
JP8. Praktikak ikastegian/Kanpoko bisitak
JP9. Aurkezpenak
JP10. Simulazioak/Rol jokoak
JP11. Landa lana

Ez-presentzialak

JEP1. Ikasketa eta lan autonomoa
JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako kompetentziak ebaluatzeko sistema

EB1. Talde lanak
EB2. Banakako lanak
EB3. Azalpenak eta aurkezpenak
EB4. Banakako proba presentzialak
EB5. Prestakuntza jardueretara joatea eta horietan modu aktiboan parte hartzea
EB6. Ikaslearen auto-ebaluazioa eta baterako ebaluazioa

Edukien laburpena

- Komunikazioaren definizioa eta ezaugarriak
- Hitzeko komunikazioa, hitzik gabekoa eta jendaurrekoa
- Komunikazioaren teoria nagusien sailkapena
- Iritzi publikoaren sorrera
- Komunikabideetako diskurtsoaren irakurketa kritikoa
- Pertsuasioa eta propaganda
- Tokiko eta mundu osoko komunikabideen eta ikus-entzunezkoen maparen egitura
- Ikus-entzunezko paisaiaren aldaketak
- Ikus-entzunezkoen buruzko politikak eta araudiak
- Ikus-entzunezkoen erabileraren eta kontsumoaren ezaugarriak